

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**420/2021 Foru Agindua, azaroaren 8koa, Hutsak zuzentzea kontzejuetako biztanleen kopuruan eta, horren ondorioz, datorren azaroaren 21eko hauteskundeetan administrazio batzarretarako hautatu beharreko kideen kopuruan, bakar-bakarrik Arraia-Maeztuko eta Valdegovía/Gaubeako udalerritako kontzejuei dagokienez**

Urriaren 1eko 377/2021 Foru Aginduaren bidez, zerrenda bat onetsi zen, non Arabako Lurralde Historikoko kontzeju bakoitzeko biztanleen kopurua jasotzen baitzen, 2021eko irailaren 1eko biztanle erroldako datuei jarraituz, bai eta kontzeju horietako administrazio batzarrak osatzen dituzten kideen kopurua ere, errejidore lehendakaria barne hartuta, kontuan izanik Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauaren 2.2 artikuluan ezarritakoa.

Hura onetsi eta gero, Arraia-Maeztuko eta Valdegovía/Gaubeako Udalek jakinarazi dute huts bat dagoela zerrenda horretan, beraien udalerritako kontzejuetara dagokienez. Horregatik, beharrezkoa da zerrenda hori, zuzenduta, berriro argitaratzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan ezarrita dago ezen administrazio publikoek, halaber, edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horregatik, hauteskunderi buruzko foru arau horretako bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Foru Gobernu Kontseiluak irailaren 14ko 528/2021 Erabakiaren bidez erabakitako gaikuntzaz baliatuz, hau:

#### XEDATZEN DUT

Agindu honekin batera doan zerrenda argitaratzea. Hartan, Arabako administrazio batzarretako kideak izendatzeko hurrengo hauteskundeak direla eta, Arraia-Maeztuko eta Valdegovía/Gaubeako udalerritako kontzeju bakoitzeko biztanleen kopurua jasotzen da, 2021eko irailaren 1eko biztanle erroldako datuak kontuan izanik, bai eta haietako bakoitzeko administrazio batzarrak osatu behar duten kideen kopurua ere, errejidore edo lehendakaria barne hartuta, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 2.2. artikuluan horren inguruan xedatutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 8a

*Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

## ERANSKINA

UDALERRIA	KONTZEJUA	BIZTANLEAK 2021/09/01EAN	HAUTETSI KOPURUA
ARRAIA-MAEZTU	APINAIZ	108	3
	ATAURI	31	3
	AZAZETA	77	3
	KORRES	32	3
	MAEZTU	339	3
	ERROETA	18	3
	LAMINORIAKO ERRET HARANA	92	3
	ERROITEGI	26	3
	SABANDO	42	3
	BIRGARA GOIEN	47	3
	GAUBEA	ACEBEDO	5
BACHICABO		31	3
BARRIO		22	3
BASABE		14	3
BÓVEDA		65	3
CARANCA Y MIOMA		42	3
CORRO		36	3
ESPEJO		275	3
FRESNEDA		17	3
GUINEA		21	3
GURENDES-QUEJO		41	3
KARKAMU		26	3
NOGRARO		14	3
OSMA		32	3
PINEDO		21	3
QUINTANILLA		12	3
TOBILLAS		16	3
TUESTA		81	3
VALDEREJO		15	3
VALLUERCA		7	3
VILLAMADERNE		34	3
VILLANAÑE		111	3
VILLANUEVA DE VALDEGOVÍA		153	3